

Itsasuntziak ere hiltzen dira

Hondarribia, 52. zk., 1993-12/1994-01: 9.

Egun hauetan kai berrira hurbildu denak ikusiko zuen untzien izotza kargatzen duten jelerien aurrean, baldarki etzana bezala, baina egiatan hila, itsasuntziaren eskeleto-karkail bat. Atera dituzte hortik alebosiaz untzien zut erakusten dituzten mastak eta antenak, patriaren puente edo zubi goia eta tximinia. Geratu da itsasuntzia izandako hau, artaburuak kendu eta armada bat derrotan geratzen diren gudari zauritu eta hilen artadi hori-errekiskaldua bezala, tutuak urik gabe, bere zentzua galdu duten burni punta txorrotx eta kamutsak, kresalak erretako zurak lehen eder eta orain pinturaren barrutik ere janak, untzien saihsak hilen hezurak baliraken bezala. Ondasun guztia zakar bilakatutako tristuran.

Gorpu hau inoiz izango zen bada koloretsu berri ponposo!

Nere lehortar buruari galdezka:

Hau dena, itsaso gainean leun eta azkar ibili dena, malkoz bustita bada ere, hondoratuko da, edo dute, primerako entierroarekin bada ere. Izenik ez da urpera joango; neuk behintzat ez diot karkas honi izenik ikusi. Matrikula, folioa, bai; folioa ez baita zenbaki ofizial bat besterik. Baina izenik ez. Izenik hondoratu nahi ez balute bezala kendu dioten patriaren zubian, gizonaren eta buruaren mailan joaten baita santuen edo deituren izena, batera ere Hondarribian, oso polito apaindua.

Orain itsasuntziaren gorpua besterik ez da hemen geratzen, eta oraindik ehortzi gabea, nasa berriak duen murraren arrimuan hondamenaren zai.

Lehen aldiz ikusi nuenean, arratsalde zurbila, lainoak argi eta goien, begiratu nuen inguruan eta neu bakarrik harritu nintzela zirudien. Ez zegoen urduri egon behar zukeen ikuslerik. Gizon bat gertu, ura jeltzen duen fabrikaren atean, baina ez untzia urrikarriaz arduraturik. Inguratu nintzaion eta esan, hunkiturik ni, itsasuntziak ere hiltzen zirela. Ez zuen nere hitzen zentzua jaso, ez baitzidan erantzun... Berriz untzien adinaz galdetu nion arte, eta orduan bai: "Hogeita lau urte", esan zidan. Hila beste norbaitena balitzan. Konturatu nintzen laster ni horretaz, zeren eta bestela urteak, hilabeteak eta egunak ere etorriko zitzaizkion burura untzia-gorpu haren aurrean!

Eta jarrai egin nuen nere gomutekin punta berriraino eta gora begira, ilun baitzetorren zerua orian euri karga beltzarekin; eta ni han gora begira nindoala iluntzen hasi zen askotan mendebaletik Faroaren atzetik etortzen diren laino beltzak dakarren euri kargaren beldur. Itzultzen hasi nintzen hartan harrapatu ninduen kazkabar jakak, eta non sartuko eta ahal izan nuenean, telefonoko kabinan. Handik, aterpe onetik, hasi nintzen Puerto Refugio zaharrean babes gozoan zeuden untzia eta txalupei begira, jasarekin ura lurrean irakiten bezala, eta haruntzago, laino tarte batetik jaisten zen argitan zeuden oraindik itsasuntzi batzuk, ongi amarratuta eta kulunkan, mastak eta antenak zutik... eta hara hor aurreraxio beste untzien gorpua, nahiko arin heriotzaren noraezan galdua bezala, eta urrutirago, eta orain argitan, baina jasaren zai bezala,

desarmatua, gabarra alfer bat zirudien beste gorpua, hirugarren bat. Gorpu gehiegi itsasoan arratsalde bakar baterako... eta Endairaino laino beltzak itsasoa eta arrainak eta untzien gainetik Europa dena ilundu zuenez gero ez nuen gehiago ikusi...

Zertarako duzu honelako paisaia, tristatzeko besterik ez bada!

Nahikoa dut lehorrean gertatzen ari diren ezbeharrak orain eta hemen itsasoko dramaz berpentsatzen jartzeko.